

# Kotarro

20  
zbk.

2012ko maiatza

debaldeko alea

## Garean-Jarduerak

### TXOKOLIPUINAK

Maiatzak 30  
Arratsaldeko 18:00etan  
La Bota elkartean

### “ZIKOINAREN HEGALDIAK”

Narrazioak eta zuzeneko musika  
Patxi Zubizarreta eta Pello Ramirez  
(biolontxelo eta akordioa)  
Maiatzak 31, 19:30ean, Liburutegian

### IRAKURLE KLUBA

Fernando Rey itzultzailearekin solasaldia  
berak itzulitako "Gure etxeko  
kontuak" eleberriaz.  
Maiatzak 24  
Arratsaldeko 19:30ean, Liburutegian

### BERTSO ESKOLA

Asteazkenero, 19:00etan  
Gareanen egoitzan

### GAREAN IRRATIA

Larunbatero 13:05etik aurrera  
Lizarrako Punto Radio-n (FM 93.4an)

### LIZARRAN KANTUZ

Ekainak 30  
Arratsaldeko 20:00etan  
Baxenabarra kaletik abiatuta



**Garean**  
Euskaldunon Elkarte



## Nahi bai, baina norekin?

*“Gure inguruan ez dago giro egokia euskara erabiltzeko”,  
“euskaraz hitz egiteko aukera gutxi dauzkat,  
eta ez galtzeko modu on bat da niretzat”...*

Sarrerako hitzok Abelinorenak eta Patxiorenak dira, Lizarrako bi mintzakide, haien antzera hogeita hamabost lagunek parte hartzen dute aurten Mintzakide programan. Egitasmo honen helburu nagusi dugu ohiko harremanetan euskara erabiltzeko aukera gutxi dituztenei posibilitate hori ematea; eta, bereziki, euskara ikasten ari direnei.

Patxi eta Goñi mintzakideek maisuki aipatu bezala egitasmo honek bestelako xedeak ere baditu: “euskara normala dela, euskara kalera ateratzea, bizia dagoela erakustea... oso inportantea da beste jendea euskaraz ikustea eta entzutea, ez dela kanpoko gauza bat, besteei arrunta

egitea entzutea astean zehar ere”. Honekin lotuta bada bertzelako helbururik ere, antolatzaileen hitzetan, “tokian tokiko euskal komunitatea trinkotzeko tresna garrantzitsua bihur daiteke”.

*Hau ez da eskola  
bat, lagunarteko  
bilera da...*

“Hau ez da eskola bat, lagunarteko bilera da”, dio Mirenek. Lagunarteko solasaldi hauetan edozeinek parte har dezake; beharrezko baldintza bakarra euskaraz

komunikatzeko gai izatea da eta, jakina, egiteko gogoia. Parte hartzaileen artean euskaraz solasteko gaitasunaren inguruan zalantzak dituenik ere bada, “euskara txarra” duelakoan edo; baina, zer da euskara txarra? Zailtasunekin izanik ere



zeozer komunikatzeko gai bazara, euskara txar bakarra ez al da egiten ez dena?

Lagunarteko solasaldietan bi figura ditugu, batetik *bidelariak*, lehen aipatu ditugun Patxi, Goñi, Abelino, Miren... euskara praktikatu edota hobetu nahi dutenak, eta bertzetik *bidelagunak*. Azken hauek euskaldun osoak dira eta hizkuntzaren erabileran lagundu ahal dute, horien artean ditugu Mentxu, Mari Jose, Josu edo Aurkene. Hauek, haien ohiko harreman sareetan euskaraz egiteko aukera dute, baina astero ordu bat eskaintzen diete aukera hori ez dutenei. Mintzalagunekin, ekimen atseginean, elkartasuna eta ongi pasatzea uztartzen dute astero.

Reginok kontaktzen digunez, “nire garaian lantegia oso gaizki zihoan eta orduan hasi nintzen euskara ikasten, 53 urterekin estreinako aldiz euskaltegira, hiru-lau urtetan gaizki xamar hitz egiten nuen, baina hitz egiten nuen”, eta Jose Antoniok gehitu “nik lankide euskaldun bat daukat, eta harekin beti euskaraz, beti, nahiz eta nitaz barre egin batzutan, aukera guztiak aprobetxatzen ditut euskaraz hitz egiteko”. “Gaizki edo ondo, nola edo hala, baina hitz egiten dugu”, borobildu dio Joseani Reginok apalki; eta Celesek orduan “bai, gutxi edo gehiago baina denok hitz egiten dugu”. Zer ikasi bada hauekin.

Mirenek, Manuelek eta Mari Pazek ezohiko taldea osatzen dute; jaiotzez jatorri ezberdinekoak, hurrenez hurren gasteiztarra, zaragozarra eta tolosarra ditugu.

*Gaizki edo ondo,  
nola edo hala,  
baina hitz egiten  
dugu...*

Euskara mintzatzeko nahiak biltzen ditu astero kafetegian ordu batez. Gasteizeko Mireni adibidez, “asko gustatzen zait hitz egitea, euskaltegian azaldu ziguten Mintzakide zer zen eta Mentxurekin kontaktuan jarri nintzen”; Mari Pazek kasuan baina, “Tolosan bizi naiz eta familiako denak oso ongi mintzatzeko dira euskaraz, baina semeek niri erdaraz egiten didate”, horregatik “Mintzakiden, Tolosan hasi nintzen eta pena ematen zidan uzteak, hortaz orain hemen eman dut izena”. Manuel berriz orain 15 urte ezkondu zen Segurako emaztearekin “eta pentsatu nuen, horrela ezin dut segitu! Goierriko bihotzean, Seguran, denak euskaraz eta ni ez! Eta horrela euskara ikasten hasi nintzen”.

Josu Riveroren taldea Lizarrako jatetxe baten txoko zoragarri batean biltzen da ortzegunero. Bertan, orduak ematen dituzte solasean Albertok, Jose Luisek, Jose Antoniok eta Patxik. Jose Luisek lau urte daramatza Mintzakiden, “oso pozik”. Patxirentzat, aldiz, lehen urtea da; Lizarra Ikastolaren lehendabiziko belaunaldiko ikasle izan zen, eta bere bidelagunekin batera buruan ahaztuak zituen hitzak berreskuratzen ditu. Albertoren begiradan astero sortzen diren solasaldietaz gozatzen duela sumatzen da.

Bertze Mintzakide talde batean ditugu Giuletta, Anutxi eta Pili. Azken honek kontaktzen digunez “duela 30 urte hasi nintzen euskara ikasten, gogo geneukan garai hartan baina gauza sinpleena esateko ere, hau lotsa!”

dirudinez gauza batzuk ez dira aldatzen, “irakasle batek, Arantxak, esaten zigun: hanka sartzerik gabe ezin da ikasi! Ez dakienak ez dizu ulertuko, eta dakienak zuzenduko dizu; ongi ikasi nuen ikasgai hura, bai horixe”. Anutzik orduan isilunea probestu eta “beti bezala, zu hitz egiten eta gu...”; horrek barre eta broma tarte zabaldu du mintzataldean, Pilik zeinen ongi ikasi zuen hitz egin behararen ikasgaia.

Giuletta berriz, taldean berria da, “iaz talde txikia ginen, Aurkene eta biok, aurren talde handiagoa gara, bost izatea ona da, dibertigarria”. Eta ezin hori ukatu Piliren beste pasarte bat gogora ekarrita, “batzutan geratzen naiz... nola esaten da, 'en blanco?'”, “zuri?” aipatzen du batek “ez, ez, zuei ez, en blanco”, barreak berriro. “Bah! Niri ere pasatzen zait, baina gaztelaniarekin!”, botatzen du bertze batek, “bai, baina hori beste kontu bat da, adina”... Eta hantxe utzi genituen broma eta barre artean euskaraz solasten.

Ikusten ahal dugunez aurpegi asko ditu proiektu honek, zehazki, Mentxuk dinamizatuta 35 lagunek parte hartu dute aurren bidelagun edo bidelari, zortzi mintzataldetan banatuta. Egitasmoaren bertze zutabea dugu talde bultzatzaileena, 6 taldek sustatzen dute Mintzakide: Lizarrako eta Garesko euskara elkarteek, AEK euskaltegiek eta Udalek. Azkenean, askoren gogo eta esfortzuarekin, euskaraz mintzatzeko aukera ematen zaio hainbat euskalduni. Horrela, proiektu honek izpiriturik balu, berau ezin hobeki deskribatu digu Abelinok: “helburua da euskaraz hitz egitea, euskarak elkartzen gaitu”. Euskara maite dugunok, ezinbertzean, geure egin beharko genituzkeen hitzak dira, duten sakontasun eta osotasun guztiarekin.

Mintzakiden izena eman nahi baduzu edo interesa izan ahal duen norbait ezagutze-kotan, bai bidelagun zein bidelari izateko, adi egon datorren urrian, kanpainari berriro ere ekinen baitzaio. Izena emateko eskuorriak ohiko lekuetan topatuko dituzu. Bertzela ere, informazio gehiago eskuratzeko hainbat bide dituzu; interneten, Garean euskara elkartearen ([garean@gmail.com](mailto:garean@gmail.com)) edo Beinat Etxepare AEK euskaltegiaren ([lizarra@aeek.org](mailto:lizarra@aeek.org)) epostak baliatuz; euskaltegitik ala Gareanen egoitzaatik pasatuz; edo 948 552 406 zein 607 613 837 (biak euskaltegia) edo 672 050 115 (Garean) telefonoetara deituz.



## Harira



# Fardel aldaketan duintasuna dago. Kalitatezko 0-3 haur eskolak

■ Txusma Azkona

Azken urteetan, "kalitatea" kontzeptua bizitzako alderdi guztietan agertu ohi zaigu ("bizi-kalitatea", "kalitateko zerbitzuak", "kalitatea bezeroari"...), eta horrenbestez, hezkuntza-esparruan ere, gehien erabiltzen den kontzeptuetako bat da.

Bitxia badirudi ere, zenbait espaziok (batzuetan, antagonikoak direnak, eta hortik "Haurtzaindegi" eta "Haur-eskola" izenen arteko bereizketa) kalitatea dute buru, aurretik behar bezala zer den zehaztu gabe, gaizki-ulertu eta nahaste ugari sortuz.

Ikerketa desberdinek baieztatzen dute (González del Yerro, A. eta C. Rodríguez, 2009), langile kualifikatuak izateaz gain, eskolak behar dituela espazio eta denbora egokiak haur eta pertsona nagusiaren harteko harremana modu egokian eman ahal izateko, haur bakoitzari behar duen atenezioa, modu duinean eman ahal izateko.

Oro har, batzuk haurren ahalmen eta gaitasunetan sinesten dugu, eta besteek, haurrek inongo gaitasunik izanen ez balute bezala, edukiez –nagusiek erabakitako edukiez– betetzen saiatzen dira.

Benetako kalitatea eman ahal izateko, autoebaluazioa ezinbertzeko tresna dugu –Reggio-Emiliako Loris Malaguzzik, "Retro-alimentación" deitu ohi zuen–, hauxe baita etengabeko hobekuntzaren bidea, erakunde bat kalitatekoa dela



eta bikaintasuna lortzeko bidean dagoela ziurtatzeko funtsezko elementua.

Kontu hauek argituz, azaldu dezagun, harrotasunez, badirela hainbat egunerokotasun elementu 0-3 eskoletan non kalitatezkoa den ala ez neur daitezkeen: jolasa, espazioak, ratioak, bazkal ordua, deskantsu momentuak edo fardel aldaketa. Azken honi atenezioa eman nahiko nioke, behar duen duintasuna eskainiz.

Fardela aldatzea ez da, zabaldua dagoen lez, "higiene" momentu hutsa. Bertze zerbait ere bada:

- Mugimendu askatasuna praktikan jartzeko unea (ikus Emmi Pikler eta Budapesteko Loczy instituzioaren esperientzia).
- Haurra eta pertsona helduaren artean "loturak" sortuko dituen unea.
- Haurrak, bere gorputzaren nozioa izateko unea izugarri baliotsua.
- Errespetuzko jarrerak sustatzeko unea.
- Hizkuntza lantzeko unea.
- Eta abar.

Hau guztia ahalbidetzeko, ezinbertzekoak ditugu formakuntza, helduen jarrera aldaketa, prozesuaren antolaketa egokia, espazioak, denbora... Eta bertze hauek ahalbidetzeko berriz, 0-3 eskolei behar dituzten baliabideak ematea.

James Heckman, Chicagoko unibertsitateko ikertzailea, eta 2000. urtean Ekonomia Nobel saridunak dioen bezala: "Haur hezkuntzan inbertitzen den dolar bakoitzeko, zortzi dolarreko itzulera dator, haur hori nagusitasunera heltzerakoan". Ez dago gaur egun, honelako interesa ematen duen bankurik.



**Jatetxea**

**Volante**

*Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak*

Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695



**LIZARR**

**Lorategi mantentze-lanak  
LOREZAINNTZA**

Valdelobos, 35  
31200 ESTELLA-LIZARRA  
T. 948 554 067 - F. 948 395 112  
M. 606 980 679  
lizarjard@hotmail.com





## Lan poltsa euskaraz sortu da: sarea handitzen doa

*Maite Goikoetxeak eta Amaia Valenciak euskara hutsean bideratutako lan poltsa martxan jarri dute Garean elkartearen babesaz. Bi arduradunek elkarriketa honen bitartez, ekimen honen berri eman nahi dute.*

### GAREAN - Zer da lan poltsa?

AMAIA / MAITE - Lan poltsaren bitartez, lan eskaintza eta eskaerak sortzen dira. Guk, bitartekari bezala, kontaktuan jarriko ditugu bere lan eskaintza edo eskaera bidaltzen dituzten pertsonak.

Lan poltsaren helburu orokorra, euskaraz lana sortzea da; era berean, ekonomia eta lan mundua dagoen egoera dela eta aukera desberdinak sortzea.

### G - Nondik dator ideia? Beste inon ba al dago horrelakorik?

A/M - Urte hasieran, Gareanen bilera egin genuenean, ideia oso aproposa iruditu zitzaigun Lizarraldean ez baitzegoen euskara hutsean bideratutako lan poltsarik. Garean Euskaldunon elkartearen denez, egokia iruditu zitzaigun bertatik lan poltsa hau aurrera eramatea.

### G - Noiz, non eta nola antolatzen duzue?

A/M - Lan hau aurrera eramateko asteartero Gareanen egoitzan elkartzen gara 17:00etan. Bertan ordu bat ematen dugu lan poltsa berritzen eta bertara hurbiltzen den jendeari erantzunak emateko.

Lan poltsa hau ezagutarazteko blog bat sortu dugu; [www.garean.blogspot.com](http://www.garean.blogspot.com). Hemen, Gareanen azken berriak izanen dituzue. Hala ere, garrantzitsua da jakitea zuen lan eskaintza edo /eta eskaera bidaltzekotan helbide honetara bidali beharko duzuela: [gareanlanpoltsa@gmail.com](mailto:gareanlanpoltsa@gmail.com)

G - Nork eman dezake izena lan poltsan? Nola, telefonoz edo?

A/M - Lan poltsa honetan euskaraz lan egin edota eskaini nahi duen persona orok eman dezake izena.

### G - Zer motatako ekintzak edo lanak dira?

A/M - Hemen, edozein motatako lanak izan daitezke. Honen lortu nahi dugun helburua euskara edozein eremutara zabaltzea delako. Esaterako, klase partikularrak, animalia zaintzailea, haur zaintzailea, begiralea, ipuin kontalaria, tabernaria, urtebetetzeetarako festak prestatzea, kirolak egiteko...

Beste lanen bat buruan baduzue, gurekin kontaktuan jar zaitzete!

### G - Noiz hasi da? Zer moduz doa oraingoz?

A/M - Lan poltsaren ideia urte hasieran sortu zen baina orain dela hilabete eskas jarri da martxan, atzean lan ugari baitago.

Uste dugu, udarari begira, mugimendu gehiago izango duela, jende gazteak esaterako, behar gehiago baititu.

#### Harremanetarako:

1. Asteartero Gareanen egoitzan 17:00etan.
2. E-mail: [gareanlanpoltsa@gmail.com](mailto:gareanlanpoltsa@gmail.com)

#### Lan poltsa ezagutzeko:

[www.garean.blogspot.com](http://www.garean.blogspot.com)

Bodegas  Lezaun  
Asador-Jatetxea

Enoturismo  
Bisita gidatuak  
Ardo-dastaketak

Lakar (Deierri) NAFARROA  
[info@lezaun.com](mailto:info@lezaun.com) - [www.lezaun.com](http://www.lezaun.com)  
Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231

LIBURUDENDA  
INO  
PAPERDENDA

Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2  
Tel. eta fax: 948 550 383 · LIZARRA



## Foto-inkesta

### Mendia

Udaberria iritsi bezain pronto, natura berpizten da eta Euskal Herrian dugun mendirako zaletasuna ere indartu egiten da. Horretaz egin dugu gure fotoinkesta.

1. Zer oroitzapen dakarzkizu mendiak?
2. Zein dira zure gailurrak?
3. Deskriba iezaguzu mendiko plan perfektua.



**Aitor Irazustabarrena**, sagardogilea

1. Oroitzapen onak dakarzkiz. Txikitari familiarekin eta gero lagunekin ere bai, pasiatzera, eskalatzera ere joaten ginen. Eguna gustura pasa izan dut beti mendian.
2. Euskal Herriko garaiena, Hiru Erregeen Mahaia eta gero beste eskualdeetako ezagunenak: Gorbea, Aizkorri... baina nik ez diot garrantzirik ematen gailurrei, ibiltzeari baizik, hamaiketako egiteari...

3. Aralarren, Amezketatik abiatu, minetako bailaratik pasatuz, urak egin-dako marmitetan bainatuz, Mailoetara joan, edo lasaiago nahi izanez gero Igaratzara, artzain baten txabolan bazkaldu... horixe.



**Rafael Sanjurjo**, irakaslea

1. Koadrilakoekin aldarre onak igaro izana eta batez ere gogoan ditut Lesakako Agina eta Frain, izan ere bi leku hoietatik nire jaioterria den Lesakaren ikuspegi ederrak daude. Hemen inguruan Urbanas Basantziturrin ospatzen genituen Ikastolaren jai egunak.

2. Nirea Sierra Nevada, eski pistetan, baina kortex joanda. Bestalde bizikletan igoz Tourmalet-en egona naiz 2115 metrora.

3. Sei orduko ibilaldia bizikletan, Pirinio aldean, zenbait tokitan geldialdiak eginez, bizpahiru, ondoren leku interesgarriren bat bisitatu eta eguna bukaeran otordu hoberenarekin amaitu.



**Egoitz Galartza**, albaiteroa

1. Umetan igandeetako plana izan ohi zen, igandero egiten genuena. Aitarekin mendian pasiatzera eta amarekin eguzkia hartzera.
2. Nirea Hiru Erregeen Mahaia, Aiako Harria ere bai, Bianditz ere igo dut, batere oxigenorik gabe, ja, ja.

3. Otarteko batzuk hartuta, oso goiz ez, lainoa joandakoan, bizpahiru orduz ibili Urbanas edo andrea eta umekin, modua jan eta etxera.



**Rafael Olló**, irakaslea

1. Ni mendira askotan joan izan naiz, asko gustatzen zait. Hoberena hamaiketako izaten da.
2. Euskal Herrian Hiru Erregeen Mahaia eta Penintsulan Almanzor; Sistema Zentralean dagoena.

3. Herri polit batetik irten lagun onekin, ibilaldi luzea baina ez oso gogorra egin ondoren, hamaiketako egin, itzuli abiapuntura eta herriak dituen monumentu ikusgarriak poliki ikusi gozatuz.

**Angela**  
Plaza Fueros 2 - Tel 948 55 07 95

**KATXETAS**  
*taberna*

Estudio de Gramática, 2  
31200 Lizarra- Nafarroa  
Tel. 948 550 010



**Bankia**




**AURTENGO SAN FERMÍN  
KARTELA OSO APROPOSA DA!  
BEHAR ZAITUGU!  
ERGELTZAT HARTURIK  
LOTSAGABE OSTEKO!**



**denborapasak**

**Gurutzegramak**



**Mendiak**

**Ezker eskuin**


- 2- Mendi gailurretan egon ohi da eta ez da gurutzea
- 3- Karlisten mendian
- 5- Izotzetan eta haitzetan ibiltzeko tresna
- 7- Mendian ez galtzeko tresna magnetikoa
- 8- Mendi izena duen Estellerriko herria

**Goitik-behera**

- 1- Lizarrako mendizaleen aterpea
- 4- Mendian ez galtzeko tresna modernoa
- 6- Mendi punta

**Euskalglifoa**

*Euskal Herriko mendi katea*



ri



oo

**Udalbide.NET**  
www.udalbide.net

ALBISTEKI ETXIA INFORMAZIOA GUZTIA ESKURA

Sartu zure udalberriera eta ikus ezazu zure UDALERRIAREN informazio guztia eguneratuta.

Ezagutu ezazu Euskal Herria, EUSKAL HERRIA SAHONERAN atalaren bitartez. Hor aurkituko dituzu Lurraldea, Biztanleria, Ekonomia eta gizartea, Euskara eta hezkuntza, Udalerriak eta Euskal Diasporen inguruko gaurkotutako datu guztiak.

Eta harpidetu zaitzez BULETIN ASTERARI ELEKTRONIKORA. Astero jasoko dituzu azken-azkeneko berriak.

**ZUREKIN**

www.udalbide.net  
www.udalbiltza.eu

Masajista diplomaduna  
Goi mailako kosmetika  
Aurpegiko eta gorputzeko tratamendu berriak

**Mirari**  
centro de estética y masajes

c/ urbieta, 1 / 31200 estella  
t. 948 554 001  
www.centromirari.com

# Irakurri, gozatu, oparitu: liburuak gozatu eta oparitzeko gonbitea

■ Kalen Artze

Apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Egunarekin, Lizarran laugarren aldiz “Irakurri, gozatu eta oparitu” kanpaina martxan jarri zen. Topaguneak (Euskara Elkarleen Federazioak) eta Garean euskaldunon elkar-  
teak antolatutako ekimen honek irakurzaletasuna sus-  
tatzea du helburu, euskaldunak euskarazko liburuak  
irakurtzera animatu nahi ditu, irakurriz disfrutatu egiten  
dela nabarmenduz.

Garean, “José Maria Lacarra” Lizarrako liburutegia eta  
Clarín, Ino, Irrintzi eta Compás liburu denden arteko el-  
karlanari esker burutzen da eta herriko eragileen arteko  
elkarlana bultzatzea ere xede du.

Aurten, aurreko urteetan baino laburragoa izanen da  
eta ekainaren 30ean amaituko da. Bi hilabete hauetan  
zehar, liburuzaleek aukera paregabea izanen dute liburuak  
askoz ere merkeago erosteko.

Ekimenaren izenak berak eman behar diren pausuak  
adierazten dizkigu:

**1. Irakurri:** Lehendabizi, euskaraz irakurri. Horretarako,  
Lizarrako liburutegira joan, eta euskarazko edozein liburu  
maileguan hartu.

**2. Gozatu:** Liburuak irakurriz gozatu, eta liburutegira  
bueltatzean, fitxa simple-simple bat bete. Liburuzainak  
erosketa-txartela emanen digu, Clarín, Ino, Irrintzi eta  
Compás liburu dendetan euskarazko beste edozein liburu  
erosteko (%25eko deskontua izanen dugu, %50ekoa  
GAREAN kidea izanez gero).

**Oparitu:** Erositako liburuak lagun bati, senide bati...  
edo, zergatik ez, norbere buruari oparitu.

Honetaz gain, irakurzaletasuna saritzeko asmoz, maiatza  
eta ekainaren amaieran, liburuaren gaineko fitxatxoa hil  
horretan bete dutenen artean, 30€-ko erosketa-txe-  
keak zozketatuko ditugu.

Kanpaina honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Es-  
tella-Lizarrako Euskara Zerbitzua, hainbat argitaletxe eta  
aipatutako herriko liburu denden laguntza ekonomikoa  
jasotzen du.

Ekainaren bukaerara arte aukera dago “Irakurri, gozatu  
eta oparitu” ekimenean parte hartu eta eskaintzen diz-  
kigun abantailak baliatzeko.



kotarro

20. zenbakia

Julio Ruiz de Alda, 6 behea, ezk.  
31200 Lizarra - Nafarroa  
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkar-  
teak



Diseinua eta maketazioa:  
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007  
Ale kopurua: 800

UDALBIDE  
EUSKALDUNON ELKARTEA

Kotarro aldizkarian agertzen diren  
artikuluen edukinaren ardurarik  
Garean Euskaldunon Elkar-  
teak ez du hartzen,  
edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean,  
autoreena baita.